

ELKARTEAK

Proiektuaren bideragarritasuna eta erakargarritasuna funtsezko bi elkarte motatan oinarritzen da. Lehen mota denda eta zerbitzu sarea da, marketplace-aren bizkarrezurra. Tokiko Ostalaritza, tokiko merkataritza, kultura eta aisia, eta bereziki ongizate-zerbitzuak (yoga, gimnasioak, fisioterapia) bilatuko dira. Baina, beste aldetik izen handiko markak, eta gure erabiltzaileentzat deskontuak eskaintzen dizkiguten enpresak; horrela, ikusgarritasuna handitzen dute eta bezeroak erakartzen dituzte. Bazkide hauen onura nagusia bezero berri gazte eta kontziente batengana iristea da, marketin-kostu txiki batekin, beren marka ongizatearekin eta komunitatearen sustapenarekin lotuz. Bigarren mota hezkuntza erakundeak dira. Ikastetxeak (Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa..) eta unibertsitateak (EHU, Deusto..) ezinbestekoak dira hedatzeko. DeToxMe-k lankidetzak eskainiko ditu, higiene digitalari buruzko hitzaldiak eta tailer praktikoak doan eskainiz. Tailer horietan, aplikazioa tresna gisa aurkeztuko da, milaka erabiltzaile potentzial lortuz modu organiko eta sinesgarri batean.